

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## DONEMILIAGAKO UDALA

## Behin betiko onespena ematea 5/2022 kreditu gehigarriari

Bat etorri Toki Erakundeen Aurrekontuen 3/2004 Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez kreditua gehitzeko 5/2022 espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, honela:

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
166-227014	HOBİ SEPTIKOAK	13.000 euro
934-369000	BESTE FINANTZA GASTU BATZUK	3.500 euro
150-780001	ERAIKINAK BIRGAITZEKO ETA KONTSERBATZEKO DIRULAGUNTZA	5.000 euro
<b>Kreditu gehigarria guztira</b>		<b>21.500,00 euro</b>

Espediente hau beheko zerrendako baliabideekin finantzatzen da; hona laburpena, kapituluka:

Handitu beharreko diru sarrerren aplikazioa:

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	21.500,00 euro
<b>Kreditu gehigarria guztira</b>		<b>21.500,00 euro</b>

Udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2023ko urtarrilaren 16a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO